

HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

IRAKASLEA: IÑIGO ARANBARRI ALBERDI

DATA: 2020ko azaroa

AZALPENA: Nola erabili behar dugu hizkuntza? Pentsatuta ala pentsatu gabe? Erantzunera iristeko, bide hau proposatzen da zazpi saio (+1) hauetan: Kontzientzia eta kritirik, sormenera. Zer bide ditugu esan-indarra lortu nahi badugu?

AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)

1. Saioa

Kontzientzia hartzea. Etimologia. Toki izenak. Hiztegiak.
Hitzen erdoka. Historiaren eta balioen zikina eguneroko hitzetan.

2. Saioa

Aurreko saioarekin lotu: krisiaren aurrean, aukerak aztertu.
Soluzio posibleak. Nor da hitzen jabea? Nork jartzen ditu jende artean? Non zikintzen dira? Nahita?

3. Saioa

Hitzen jabeak. Sarrera problematikoak. Distantziaren arazoa.

4. Saioa

Superlatiboa. Adjektiboa. Arazoak eta soluzioak.

5. Saioa

Neohizkera zer den. Eufemismoa, onkeria.
Korapiloa askatzen: literaturaren bidea.

6. Saioa

Neohizkera II. Hizkera politikoa eta administratiboa.
Literaturaren bidea II

7. Saioa

Jolasaren bidea: giglikoa, jitanjaforak, kaligramak...
Intertestualitatea.
Gure ondaretik zer.
Literatura. Adibide praktikoak aztertu: narratzailea non, hizkera, isiltasuna.

8. Saioa (irekia, Soreasu antzokian)

Film emanaldia eta foruma. Oskar Alegria: Zumiriki

1. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Helburua: darabilgun hiztegiaren kontzientzia hartzea. Erabiltzaile moduan, krisira eramatea. Zer egin behar du hiztunak? Darabilen hitz bakoitzaren gaineko galdera? Pentsatu gabe erabili?

- Etimologia. Pertsona izenak. Toki izenak.
- Hitzen erdoka. Hainbat adibide: gizona, mutila, gizarte, jendarte, giza-..., emagaldu, aitasantu, hiztegi katolikoa eguneroko erabileran...
- Hiztegiak: RAE (vascuence), Plazido Mujikaren hiztegia (fornicar, adulterio, puta, maricón, revoltoso, evolucionismo...) eta Jon Goikoetxearen Loyola inguruetakoko iztegitxoa (aje-ume, aketza, jan.txakurra, prentxes...). Hauen pisua gaur egun.

. ARIKETA PRAKTIKOAK:

-Agatha Christie: And Then There Were None (jatorrizkoan: Ten Little Niggers)
Hamar Beltx (1990)/ Eta ez zen alerik geratu (2005)

. Moldaketak beste hizkuntza batzuetan. Eztabaida.

Osagarri:

Prentsara salto:

- Francisco Rios. Hablar.bien@lavoze.es "Esquimales e inuits"
- Ensalada africana
- Aimé Césaire: Negritudea
- Herrien iragan koloniala: "Moro, Plata, Bronce" (Marca), "LAB pone una pica en Nafarroa" (Gara)

Bukatzeko, bi hiztegi:

Hitzen ondoeza, Joseba Sarrionandia

Deabruaren hiztegia, Ambrose Bierce

2. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Aurreko egunekoa itxi:

Jainkoeterno

No lo haría ni por todo el oro del mundo/C'est le Perou/ Not for all the tea in China...

Athleticek Old Trafford konkistatu du (Berria)

Beraz:

1.Jabetza. Krisia,

- a. Etimoa
- b. Hitzen erdoka.

2.Soluzio posibleak

- a-Hitza baztertu
- b.Hitzen esanahia aldatu
- c. Era adierazkorrean erabili

Galdera nagusia: nor da hitzen jabea? Zein dira hitzen ekoizleak gaur egun? Gizartean nagusi erabili arte behin eta berriz jartzen dituztenak?

-Nor da hitzen jabea?

-Hitzen ez badute esan nahi dutena esan nahi, zer?

- Zein da sormenaren funtzioa nahaste honetan?

Talde lana:

Ofelia Hernandezen hilketak Durangon (2005-01-15). Aztertu albistea. Gara eta El Correo.

Biktima nola identifikatu den. Jatorria, izena...

Xehetasun trukulentoak.

Bada alderik bi hedabideen artean.

Hildakoa bertako bat izan balitz, eta eman dezagun, institutuko irakaslea edo bankuko zuzendaria, berdin emango zen?

3. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Hiztegiarekin jarraitu.

Izenaren jabe. Izenaren eta abizenaren erabilera generoaren arabera
Adibide praktikoak, Euskadi irratian, sistematikoki, "emakume hori"

Geografia. Jatorria markatu beharra herri prentsan.

Peters proiektzioa euskal geografiara aplikatu beharra

Hiztegi markatua: arrotza, fatxa, heroia...

Kontzeptu oso inportantea orain arte esandakoaz gain. DISTANTZIA

Hiru hitz: tsunamia, lurrikara, Auschwitz

Ariketa praktikoa: egin testu fribolo bana aurreko hitzekin.
Posible da kasu guztietan? Zergatik bai eta zergatik ez?

Terminologia militarra covid garaian.

Bi irakurketa- Irakurri eta komentatu-

Susan Sontag, El sida y sus metáforas

Viktor Klamperer, LTI, La lengua del Tercer Reich

4. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

0. AURREKO ESKOLAKO TESTUAK

Zer gogoeta? SUPERLATIBOaren arriskua:

- Literatura ingurukoak: "iazko libururik onena hautatzeko" (ikus)
- "Hil aurretik ikusi beharreko munduko tokirik ederrenak"

1. ADJEKTIBOA. Hainbat apunte

Josep Pla (El quadern gris): "Adjektiboa topatzeko erretzen dut"

Idazleak presioa du: beti AUKERATU egin behar du.

Stendhal: ordu laurdena behar izaten dut izenaren aurretik edo ondoren adjektibo bat ezartzeko.

Ezin da edozein adjektibo jarri.

Plak Pio Barojagatik: "Asto bat puzkerka bezala aritzen da"

Adjektiboak murriztu egiten du, hurbildu egiten du.

Paul Valery: "Adjektiboari beldurra izatea estiloaren hasiera da"

Horregatik, joera nagusia ADJEKTIBO GUTXI

Flaubert: "Literatura, azken batean, hitz egokiak topatzea da". Zehaztasuna ezinbestekoa,.

AHOLKUAK:

-Kontuz epitotoekin: elur zuria, harri gogorra, gau iluna...

PRAKTIKA

Sustantibo jakinak.

Ariketa: zer izen lotzen diegu hamarretik bederatzitan ondorengo adjektiboetara?

-Islamiarra

-Etnikoa

"Franco, diktadore odoltsua"/"San Frantzisko Xabier, euskaltzale sutsua zen". Benetan?

"Lucio Urtubia, anarkista historikoa hil da" /Baina, "Etxekoandre historikoa?"

BLANCA URGELL (Berria): "Adjektiboak, nora joan dira?"

ALEJO CARPENTIER: "El adjetivo y sus arrugas"

PRAKTIKA:

HARIAK SORMEN BIDEAN:

OXIMORONaren aukera:

Egitura sintaktiko berebean, elkarren artean kontrako esanahiak dituzten hitzen konbinazioa.

- "Musika isila" (San Juan de la Cruz)
- Isiltasun burrunbatsua /Elur beltza/ Goxotasun izugarria/Izotz beroa/errea
- Monarkia errepublikartua/Gudari bakezalea/ Atxondo, "isiltasuna entzuten den tokia"
- "Piztu zure izotza, itzali zure egarria"/Arbeit macht frei/Umora serioa/Euri lehorra

Aztertu zer aukera ematen duten sormenean, publizitatean...

5. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

- 1- Neohizkera zer den.
- 2- Orwell eta neohizkera
- 3- Neohizkera eta politikoki zuzena zer den
- 4- Jolasa. Cortazar

ORWELL (1984)

Nobela amaieran, eranskin bat ageri da, "Hizketaberriaren printzipioak".

Kasu honetan, neohizketa berez, ingelesaren bertsio laburtua da (itzukpenetan moldatu egin ohi da itzulitako hizkuntzara), eta Alderdiaren erregimen totalitarioaren oinarrietako bat da, hizkera berria. Hizketaberriak zaharra ordezkatu behar luke (irakurlearentzat gaur eguneko ingelesa), horrela, Alderdiko kideen pentsakera menderatu eta INGSOCaren kontrako pentsakerak biderik izan ez dezaten. Horrela, askatasunaz inork gogoetarik egin ez dezan, azabatu egiten dira hitzaren esanahi horiek.

HIZTEGIA ahalik eta murriztena izango da (Txarra hitza =ezona)

Hiru zati izango ditu:

A hiztegia: Hitz arruntak, egunerokoak (jan, edan, zuhaitza). Kasurik gehienetan, hiztegi zaharrarekin bat datoz. Baina sentimentu oinarrikoak adierazteko, ez eduki politiko edo filosofikorik.

B hiztegia: Asmo politikoz sorturiko hitzak, hiztunaren pentsakera zuzentzea eta kontrolatzea da helburua. Hala, sexuon (kastitatea).

Ohore, justizia, moraltasun, internazionalismo, demokrazia, zientzia... ez ziren jada existitzen.

Hitz bakar bat, esaterako, askatasun eta berdintasun esateko, krimenpentsatu.

C hiztegia: hitz zientifikoak eta teknikoak, baina moldatuak, "arriskutsuak izan ez daitezen"

GRAMATIKAK bi ezaugarri izango ditu:

1. Edozein hitzek edozein funtzio bete lezake esaldiaren barnean, hau da, hitz bera erabil liteke izen, aditz, adjektibo, adberbio bezala. Euskaraz zaila da hau lortzea, baina ingelesez askoz errazagoa da.
2. Erabateko erregularitasuna. Hala, iraganeko aditz guztiak –ed amaituko diram plurak guztiak –s etab.

Orwell totalitarismoen kontrako ekintzailea zen (bai teorian eta bai praktikan).

Eta horretarako, ezinbestekoa da argi pentsatzea. Eta argi pentsatzeko, hizkuntza behar dugu. Idazteko, SEI ARAU utzi zituen, baliagarri zirelakoan:

1. Ez erabili inoiz metaforarik, similik edo antzeko literatura baliabiderik idatziz sarri aurki daitekeenik. (klixeak)
2. Ez erabili hitz luzerik bere tokian laburra erabili badaiteke.
3. Hitz bat kentzea baduzu, kendu.
4. Ez erabili pasiboa aktiboa erabil badaiteke.
5. Ez erabili hitz arrotzik, zientifikorik edo halakorik ordain arrunta baldin badu.
6. Ez bete hemen esandako ezer lekuz kanpo dagoen zerbait esan behar baduzu.

Sei arau hauei, aholku bat erantsi zien:

Idazten ari garela, esaldi bakoitzaren aurrean gelditu eta galdetu behar genioke geure buruari: zer esan nahi dut? Zer hitzek adierazten dute hori? Zer irudik egiten dute argiagoa? Esan dezaket laburrago?

Hortik aurrera, hitz egokiak aukeratzen dago gakoa, irudiak ondo asmatzen, esanahia argia izan dadin.

“Pertsonak ez badute hizkuntza menderatzen, ezingo dute garbi pentsatu. Eta hau gertatzen bada, beste batzuk izango dira haien ordeztatik pentsatuko dutenak”.

EUFEMISMOA

Definizioa:

Eufemismo (antzinako grezieratik, εὐφημία, ongi esana) pentsamendu figura bat da. Baliabide hau honetan datza: hitz bat publikoki erabiltzeko egokia ez denean horren ordeztatik hain gogorra ez den beste bat erabiltzen da.

Batzuk, oso EGUNEROKO BIZIMODUKOAK

Ospitalean: Gernua/ Gorozki/ Libratu (hacer de vientre)// Levanta el culete/ Braguitas

Familia esperoan egon (estado de buena esperanza)

Bere parteak/Hor behean

Umorerako:

Erregian arpegixa agiri jakon fraka apurtutik (Toribio Etxebarria)

“Molaren ahotik behera” (Koldo Izagirre, Metxa...)

George Orwelllek zioen 1946an “hizkera eta idazkera politikoak, batez ere, defenditu ezin denaren defentsa da”

HIZTEGI POLITIKOAN

ZAPATERO: ez zuen KRISI hitza erabiltzen, DESAZELERAZIOA baizik

ELENA SALGADO: ernamuin/kimu berdeak

Fatima Bañez: “movilidad exterior”>>>kanpora zihoazen gazteak

Luis de Guindos: “gravamen adicional”>>>IVA igotzea

Erret etxea: “Ezkontza elkarbizitzaren etenaldi baterakoa” (cese temporal convivencia matrimonial)

Hillary Clinton: gaztetan ez zuen marihuana erre, “inhalatu” egin zuen, arnastu

<Pantaila: Gipuzkoako Ingurumen Gune Berria>

HEE, Hondakinetatik Eratorriko Erregaia

HIZTEGI SOZIALEAN

86an, “minusvalía”>>>>

Discapacidad intelectual>>> ezgaitasun intelektuala

IRALERen proposamena:

dificultad→ zailtasun// deficiencia→ urritasun// discapacidad→ desgaitasun // minusvalía→ minusbaliotasun // incapacidad→ ezintasun// invalidez→ baliaezintasun

BERRIA Estilo liburua

Eufemismoak, inoren esanetan bakarrik

Hona hemen zenbait eufemismo, inoren esanetan bakarrik erabiltzekoak:

eufemismoa ordaina

albo ondorioak biktima zibilak

baketze operazioa operazio militarra

beltzarana beltza

desfaboratuenak pobreak, txiroak

hazkunde negatiboa (ekonomia) krisia, krisialdia, atzeraldia

helduentzako filma, helduentzako aldizkaria... film pornografikoa, aldizkari pornografikoa...

hirugarren adina zahartzarua

Hirugarren Mundua herrialde pobretuak

koloreko gizona, emakumea gizon, emakume beltza

langile taldea doitu langile taldea murriztu

zehar kalteak biktima zibilak

GALDERA DA, LORTZEN DUTE POLITIKOEK NAHI DUTENA (PRENTSA BERENERA EKARRI?)

6. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

AURREKO SAIOAREKIN LOTU:

:

1. Neohizkera, 3 adibide

BAT

ADMINISTRAZIOA

Zein da esparru-akordioen eta kontratu zentralizatuen arteko desberdintasuna?

Esparru-akordioan akordio horretan oinarritutako kontratuen baldintzak ezartzen dira, kontratu horiek esparru-akordioko esleipendunen batekin burutu beharko direlarik. Behar diren zerbitzu edo produktu zehatzak erakunde eskatzaileek adieraziko dituzte oinarritutako kontratu bat izapidetzean. Halaber, erakunde eskatzaileek izapidetutako oinarritutako kontratuetatik eratorritako gastuak kudeatzeko eskumena izango dute.

Kontratu zentralizatuak estatuko sektore publikoko hainbat ministeriotako eta erakundetako zerbitzuak multzokatzen dituzte eta hauen agirietan ezartzen dira beharrezko zerbitzu zehatzak eta zerbitzuak emateko baldintzak. Orokorrean, kontratu hauetatik eratorritako gastuak Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioaren (MINHAP) 31. Atalari egozten zaizkio, kreditu hori Kontratazioaren Arrazionalizazio eta Zentralizazio Zuzendaritza Nagusiak (DGRCC) kudeatzen duelarik.

(https://contratacioncentralizada.gob.es/eu_ES/tengo-dudas)

BI

Ondare sozietateen inguruan, ez dago berririk. Aurrekoan ez zen onartua izan, eta oraingoan ere ikusiko dugu, hitz egingo dugu, eta kasuan-kasuan akordatu dugu.

(Gipuzkoako Batzar Nagusiak, 2008, ekainak 26)

HIRU

Zenbait sindikatu eta alderdi historikoekin batera Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren aldeko Euskal Plataforma osatzen dugun euskal erakunde memoriazaleak, beste urte batzuetan bezala, Arriaga Plazan elkarretaratzea akordatu dugu, Legezko Errepublikaren kontrako kolpe militarrek eragindako biktima denek omentzeko eta egun oraindik dagoen frankismoaren zigorgabetasuna salatzen.

(<https://www.ceagua.org/homenaje-en-bilbao-a-las-victimas-que-las-tropas-franquistas-originario-en-la-ocupacion-militar-el-19-de-junio-de-1936/>)

2. Jolasa eta praktika

Irakurri eta ordezkatu hitzak:

Julio Cortazar. Rayuela. 68 atala

7. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Aurreko saioarekin lotu. Jolasa.Sormenerantz.

a. Cortazar: GIGLIKOA

b. JITANJAFORAK:

b.1. Euskarazko bi adibide

b.2. Huidobro

c. KALIGRAMAK

c.1. Apollinaire

c.2. Papaseit

c.3 Artze

c,4 Leire Bilbao. Loturak

d. INTERTESTUALITATEA: Koldo Izagirre, Zergatik bai

e. GURE ONDARETIK: Arrainak, Adibideak eman,

Lehorreko animaliekin?

Landareekin? " Ori ezta geratuko azearen azpian, ése es muy resuelto (V-m)" A EY III 222

ADIBIDE PRAKTIKOAK:

1.Miren Agur Meabe. Erreturak. Miramar

2. Pello Lizarralde. Orbanak.

DESKRIBA DEZAGUN

Deskriba dezagun, esaterako, isiltasuna.

Zer behar dugu?

IZENAK aipatzeko behar ditugu. Tokiak, gauzak, elementuak.

ADJEKTIBOAK zamatu egin dezakete isiltasuna, eta zarata bihurtu, neurritz egiten ez badugu.

ADITZAK behar ditugu, baina ez edozein aditz.

ADBERBIOAK aditzaren inguru guztia moldatzen du. Kontuz beraz, adjektiboaren gaitz berak ditu.

Zeru ezin urdinagoan enarek etxafuegoen ke zuriaren hondarrak zeharkatu zituzten. Lurreko berbaro aurreko burrunbari nagusitu ahala, enara askok beren lekua bilatu zuten elizaren eta ondoko etxeen harri beroetan, zirinen eta luma txikien artean.

Dorrean, ezkilek uzten zieten tartean, hegaldi laburrak egin zituzten usoek. Bakan batzuk handik zubiraino jaitsi eta firrindan iragan ziren harrizko gurutze baten gainetik. Ibarbasoko itzalean pausutu aurreko istantean haien hegalek ziztu labur bat egin zuten. Geri zubi buruko iturriaren murmurak hartu zuen ingurua, harik eta giza itzal batek kanilaren aurrean makurtu eta uraren soinua eten arte.

Giza itzalak tamaina handiko beste itzal bat zeraman loturik. Iturri aurrean makurtuta zegoenak esku bat baliatu zuen ura ahora eramateko, eta asetakoan eskua astindu zuen. Itzal handiaren

mugimendu bizkor baten ondotik bi eskuak itzal atxikiaren alde banatan jarri ziren, eta horrekin batera hauspo baten akorde bitxia entzun zen.

AZTERTU

- Zer izen ageri dira?
- Zer adjetibo?
- Aditzak?
- Adberbioak?
- Zer datu ditugu espazioa interpretatzeko?
Guk dakigunarekin, Nafarroa edo Araba, udan.
Eta ez bagenu aurrez dugun informazioa?
Madrildar batek? Paristar batek? Senegaldar batek

DESKRIBAPENAREN ARAUAK

1. Esaldi argiak, plastikoak. Euskaraz, kontuz erlatibozkoekin. Kargatu egiten dute esaldia.
2. Estiloa. Garaian garaikoa. Kontuz estilo geldoarekin.
3. Inpresio zuzena eragin behar du. Dotoreziarik gabekoa. Kontuz oratoriarekin.
4. Irakurlea hasietarik harrapatzea komeni da. Esaldi esplikatorik ez.
5. Ez erabili, ahala dela, esaldi multzo bat, bakarra nahikoa denean.

KAMERA NON

Isiltasuna>>> Framea, markoa aukeratzeko dugun unetik beretik.
Beste guztia kanpoan geratzen da. Zarata guztia kanpoan

KAMERAREN ERABILERA

Plano zabala. Detailea gero.

Soroa zenari begira geratu naiz, belarretan islatzen diren argiuneei. Torratxorien jan-potoa sagarrondotik jausi da orbel artera, haizeteren batek botata. Badirudi esaten ari zaidala nahia eta ekina eskutik joan ezear eguneroko bizimoduaren sasitzak edozein eder-gura itotzen duela.

Tupustean bafada bat sentitu dut, konpainia baten bolada: ama marrubiak batzen iloba bakarrarentzat; osaba aitabitxi, bere keinu mantso eta berba urriekin, loreak landatzen; aita aizkoraz jotzen madariondo iharra, mahats-parra antzutua, kareorezko horman loditutako huntz tematia, palmondoaren adar kankailuak.

Hiru irudiok lanbro antzekoak dira martxoko zero zikinaren azpian. Nire buruan —tenpluetako kupuletan formak eta hotsak zurrumbiltzen diren moduan— nahaspildu egin dira etxeko zaharren ahotsak, haien zat oinarrizkoak ziren berbak: uralita, perrexila, familia, egin, botxia, ilarrak, sugandilak, lagundu, geranioak, aitzurkulu, haziak, batu, ura, denona, loretan, eman. Iraganetik erauzi nahi nituzke, baina iragana oraezina da eta oroimenak baldarki arpilatzen du, atzazal iruzurtiekin harramazka eginez.

Haizea erara dagoenean etorri beharko dugu erretura egitera. Belarrak, sasiak eta bestelako lohiak erreko ditugu, itsatsita daukaten lur eta guzti, ondoren errautsak lore artera eta fruta-arbolen orpoetan sakabanatzeko.

Atea itxi dut. Lursailaren izena etxetxoaren atondoan ageri da, azulejuz osatua: Mirama

8. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

SAIO IREKIA, Soreasu aretoan.

Oskar Alegria; Zumiriki.

Foruma

BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

APOLLINAIRE, Guillaume, Caligramas, Cátedra, 2007

ARANBARRI, Iñigo, Hitzak eta giltzak, Alberdania, 2001

ARANBARRI, Iñigo, Hizlandia, Susa, 2006

BIERCE, Ambrose. Deabruaren hiztegia, Ibaizabal, 2002

CARPENTIER, Alejo. "El adjetivo y sus arrugas", Galerna, 1980

CESAIRE, Aimé. Sorterrirartze baten kaiera, Susa, 2014

CORTAZAR, Julio, Rayuela, Porrúa, 1963

GOIKOETXEA, Juan, "Loyola inguruan osatutako iztegitxo", Euskera, 1967

HUIDOBRO, Obras Completas, Andrés Bello, 1976

IZAGIRRE, Koldo, Zergataik bai, Kriselu, 1977

KLEMPERER, Viktor, LTI, La lengua del Tercer Reich, Minúscula, 2001

LIZARRALDE, Pello, Orbanak, 2012

ORWELL, George, 1984, Txalaparta, 2020

MEABE, Miren Agur, Hezurren erretura, Susa, 2019

MUGICA, Placido, Diccionario Castellano-Vasco, Mensajero, 1965

SARRIONANDIA, Joseba. Hitzen ondoeza, Txalaparta, 1997.

SONTAG, Susan, La enfermedad y sus metáforas, Contemporanea Debolsillo, 2008

URGELL, Blanca, "Adjektiboak nora joan dira?", Berria, 2020-09-09

o
